

Amodiozko Kanta
Negu Gorriak

Intro:

Bb C C# Eb

Estrofa:

Bb
MAITE ZAITUT,
C
NIRE POLTSAREKIN,
C#
AUTOUSERA ABIATZEN
Eb
NAIZEN BAKOITZEAN.

EstrIBILHO:

F

F# C#
ITZULTZEAN LIBURUA HARTU

BEZAIN LASTER,
G#
LOAK HARTZEN NAU
F
ZUREKIN EGITEKO AMETS.
F#
ETA AMETSETAN
C#
MAITE ZAITUT LAZTANA
G#
XABIERREN OLERKI
F
OBSESIBO BAT BEZALA,

Letra:

MAITE ZAITUT,
NIRE POLTSAREKIN,
AUTOUSERA ABIATZEN
NAIZEN BAKOITZEAN.
MAITE ZAITUT,
BIDAIA LUZE HORRETAN
LOAK EZIN HARTUZ.
MAITE ZAITUT,
NIREA EZ DEN HERRI BATEAN

KAFESNEA HARTZERAKOAN.
MAITE ZAITUT,
HORMA GRISAK IKUSTEN ETA
ZENBAKIA EMATEN DIDATENEAN.
MAITE ZAITUT,
KARNETA ERAKUSTERAKOAN
MIATZEN NAUTEN BITARTEAN.
MAITE ZAITUT,
BI METRO KARRATUETAN
ESERITA ITXAROTEN DUDANEAN.
MAITE ZAITUT,
AGERTU ETA BEGIEKIN,
DENA ADIERAZTEN DIDAZUNEAN.
MAITE ZAITUT,
ZURE ESKUA IKUTU BEHARREAN
KRISTAL LODIA
FEREKATZEN DUDANEAN.
MAITE DITUT,
BISITAK IRAUTEN DUEN
BERROGEI TA HAMABOST MINUTUAK.
ZERRAILA HOTSAK,
BESTE HILABETE IKUSI GABE,
GOGORARAZTEN DIDANEAN.
BESTE KANTA,
ERE IDATZ NEZAKE
BAINA NAHIAGO DUT
NEKATUTA EGOTEA.
ETA ESALDIA,
NEKATZEN EZ ZAITUENA,
BESTE HAMAIIKA ALDIZ
ERREPIKATUKO DIZUT.

ITZULTZEAN LIBURUA HARTU
BEZAIN LASTER,
LOAK HARTZEN NAU
ZUREKIN EGITEKO AMETS.
ETA AMETSETAN
MAITE ZAITUT LAZTANA
XABIERREN OLERKI
OBSESIBO BAT BEZALA,
SARRIK MOLDATUTAKO
NARRAZIO BAT BEZALA,
ATXAGAREN OBABAKO
IPUIN BAT BEZALA,
MIKELEN ISTORIO
ODOLTSU BAT BEZALA.
MAITE ZAITUT LAZTANA.